

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Materialerako 2019ko dirulaguntzen deialdiaren hornidura handitzea

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio kontseiluak 2019ko martxoaren 1ean onetsi zuen deialdi hori, xedetzat hartuta diruz laguntzea irabazteko xederik gabeko erakunde edo elkarteak, erakunde onuradunen jarduerak antolatu, haien berri zabaldu eta abian jartzeko prozesuak errazteko ezinbesteko materiala eskuratu ahal izateko.

Deialdi hori 15.000,00 euroz hornitu zen 2018ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.8.1.00.01 partidaren kontura (2019ra luzatuta).

2019an, aurreikusi baino eskaera gehiago egin dira eta, beraz, laguntzaren zenbatekoa askoz ere txikiagoa izango da 2018an emandakoa baino, eta horrek jarduerak antolatzen dituzten elkarteak kaltetuko ditu diru aldetik.

Materiala eskuratzeko dirulaguntzen deialdiak, zeina 2019ko martxoaren 15eko ALHAOn (32. zenbakia) argitaratu baitzen, bosgarren apartatuan jasotzen du emandako laguntzen hornidura ekonomikoa handitzeko aukera, horretarako aurrekontua aldatuz, betiere deialdia ebatzi aurretik.

Aisialdiko prestakuntza eskoletarako dirulaguntzen deialdia, 40.000,00 euroz hornitua, ebatzi ondoren, 27.154,00 euro eman dira dirulaguntzetan, eta 12.846,00 euro geratu dira esleitu gabe.

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerei erantzun egokia eman beharra dago, eta Idazkaritza Teknikoak txostena egin du, zeinetan proposatzen baitu materiala eskuratzeko dirulaguntzen deialdiaren hornidurari 5.000,00 euro gehitzea; zenbateko hori aisialdiko prestakuntza eskoletarako dirulaguntzen deialditik dator.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da.

EBAZPENA

Lehenengoa. Onestea hornidura handitu dadila 2019an erakunde onuradunen jarduerak antolatu, haien berri zabaldu eta abian jartzeko prozesuak errazteko ezinbesteko materiala eskuratzeko dirulaguntzen deialdirako, zeina 2019ko martxoaren 15eko ALHAOn (32. zenbakia) argitaratu baitzen.

Bigarrena. Hornidura 5.000,00 euro gehitzea erabaki da Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako aurrekontuko 71.1.00.10.00.481.00.01 partidaren (2019ra luzatuta), horretarako hornidura nahikoa dagoela jo baita.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitara dadila erabakitzea; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko, ezta epe berri bat hasten denik ere ebazpena emateko.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 20an

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO